

2019ko martxoaren 8a, ostirala

47

Viernes, a 8 de marzo de 2019

BESTE BATZUK

7

OTROS

URAREN EUSKAL AGENTZIA

Ekialdeko Kantauriar Arroen Bulegoa

EBAZPENA, 2019ko otsailaren 22koa, Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusiarena, «Emari ekologikoen erregimena ezartzeko Hitzartze Prozesua – Urola Unitate Hidrologikoa (2019ko urtarrila)» delako behin-betiko dokumentuari onespena ematen diona eta, halaber, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren EAEko Barne Arroen Eremuari dagokion Hitzartze Prozesuaren esparruan, dokumentuan dauden ur-aprobetxamenduetan Hitzartze Prozesua amaitutzat ematen duena.

Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa onartzen duen ekainaren 7ko 400/2013 Errege Dekretuaren 15. artikuluari jarraiki, indarrean dauden emakidetan emari ekologikoen erregimena ezartze aldera, Hitzartze Prozesu bati ekin zaio, Plangintza Hidrologikoaren Erregelamenduaren 18.3. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Aipatutako 15. artikulua ezarriaz eta dituen eskumenen esparruan, Uraren Euskal Agentziak Hitzartze Prozesu hau abian jarri du emari ekologikoen erregimena EAEko Barne Arroen Eremuan ezartzeko. Dagoen informazioaren azterketa errazte aldera, prozesu hau unitate hidrologikoz unitate hidrologiko garatzen ari da (aurrerantzean UH) eta, parte hartze publikoaren mailari dagokionez, informazio eta kontsulta publikoaren urratsak, behintzat, jaso behar ditu.

Informazio publikoaren urratsari dagokionez, Uraren Euskal Agentziak Hitzartze Prozesuaren gaineko informazio guztia publikoarentzat eskuragarri jarri du bere web-orrian (www.uragentzia.euskadi.eus). Bertan bildu dira prozesua arautzen duten arau nagusiak, azterketak eta dokumentu teknikoak; horien artean «Dibulgazio dokumentua» deritzona. Dokumentu horrek Hitzartze Prozesua garatzeko aurreikusita dauden prozedura-urratsak laburbiltzen ditu eta ur-aprobetxamenduak A eta B taldeetan sailkatzeko erabili diren irizpideak identifikatzen ditu. Horrez gain, aipatutako web-ean GIS bisorea eskegi da, eta, horren bitartez, ur-aprobetxamenduaren hargune-puntu zehatz bakoitzean bete beharreko emari ekologikoak kontsulta daitezke. Azkenik, Hitzartze Prozesuaren garapenaren gaineko informazioa ere eskuragarri jarri da, unitate hidrologikoz unitate hidrologiko.

Bigarren urratsari dagokionez, 2015eko otsailaren 20ko Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusiaren Ebazpenarekin bat etorriz, «Emari ekologikoen erregimena ezartzeko Hitzartze Prozesua –Urola Unitate Hidrologikoa– (2015eko otsaila)» delako dokumentuari hilabeteko epea eman zitzaion kontsulta publikorako. Ebazpen hori 2015eko martxoaren 12ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean –48 zenbakian– argitaratu zen, baita Urola UHn kokatzen diren udaletako iragarki-tauletan ere.

Aldi berean, Hitzartze Prozesu honen xede diren Urola UHko zenbait ur- aprobetxamendu Natura 2000 Sarean eta Espezie Mehatxatuen Interes Bereziko Eremuan kokatuta daudenez, 2015eko otsailaren 24ko idatziaren bitartez, aipaturiko proze-

AGENCIA VASCA DEL AGUA

Oficina de las Cuencas Cantábricas Orientales

RESOLUCIÓN de 22 de febrero de 2019 del Director General de la Agencia Vasca del Agua, por la que se aprueba el documento definitivo «Proceso de Concertación para la implantación del régimen de caudales ecológicos - Unidad Hidrológica Urola (enero 2019)», y se da por concluido el Proceso de Concertación en los aprovechamientos incluidos en dicho documento, en el marco del Proceso de Concertación para el ámbito de las Cuencas Internas de la Demarcación Hidrográfica del Cantábrico Oriental.

De conformidad con lo dispuesto en el art. 15 del Real Decreto 400/2013, de 7 de junio, por el que se aprueba el Plan Hidrológico de la Demarcación Hidrográfica del Cantábrico Oriental, para la implantación del régimen de caudales ecológicos a las concesiones en vigor se está desarrollando un Proceso de Concertación, según lo dispuesto en artículo 18.3 del Reglamento de la Planificación Hidrológica.

En aplicación del citado artículo 15 y en el marco de sus competencias, la Agencia Vasca del Agua ha iniciado el Proceso de Concertación para la implantación del régimen de caudales ecológicos en las Cuencas Internas del País Vasco. Para facilitar el análisis de la información existente, dicho proceso está siendo desarrollado unidad hidrológica a unidad hidrológica (en adelante, UH) y, respecto a los niveles de participación pública, deben abarcarse, al menos, los niveles de información y consulta pública.

En relación con el nivel de información, esta Agencia Vasca del Agua ha puesto a disposición del público en su página web (www.uragentzia.euskadi.eus) la información relativa al Proceso de Concertación, incluyendo las principales normas que lo regulan, estudios y documentos técnicos; entre ellos, el denominado «Documento Divulgativo» que resume los diferentes pasos procedimentales previstos para el desarrollo del Proceso de Concertación e identifica los criterios adoptados para la clasificación de los aprovechamientos en los Grupos A y B. Asimismo, se ha publicado en dicha página un Visor GIS que permite la consulta espacial de los caudales mínimos ecológicos en cada punto concreto en el que se sitúe la toma del aprovechamiento de agua. Finalmente, también está disponible la información sobre el avance del Proceso de Concertación, unidad hidrológica a unidad hidrológica.

Respecto al segundo nivel, de acuerdo con lo dispuesto en la Resolución de 20 de febrero de 2015 del Director de la Agencia Vasca del Agua, el documento «Proceso de Concertación para la implantación del régimen de caudales ecológicos - Unidad Hidrológica Urola (febrero 2015)» fue sometido a consulta pública por un plazo de un mes. Dicha resolución fue publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 48 de 12 de marzo de 2015 y en los tablones de anuncios de los ayuntamientos incluidos en la UH Urola.

Del mismo modo, al existir en la UH Urola aprovechamientos objeto del Proceso de Concertación ubicados en lugares Red Natura 2000 o en Áreas de Interés Especial de Especies Amenazadas, mediante escrito del 24 de febrero de 2015 se in-

suaren berri emateaz gain, eremu honetan kontsulta publikoari hasiera eman zitzaiola jakinarazi zitzaion Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiari.

Kontsulta publikoaren aldian, Urola UHko eremuan eragina izan zezaketen lau alegazio edo proposamen jaso ziren. URAk horiek aztertu eta erantzuna eman ondoren, titularren eskakizunek fase honetan kontuan hartzeko alderdi esanguratsurik jasotzen ez zutela ondorioztatu zen. Horregatik, Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusiaren 2015eko uztailaren 21eko Ebazpenaren bitartez, Urola Unitate Hidrologikoko behin betiko dokumentua onetsi zen, bertan A taldean sartutako ur-aprobetxamenduetan Hitzartze Prozesua amaitutzat emanez. Ebazpen hori Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko 173. zenbakian (2015/09/10), unitate honetan kokatuta dauden udalerrietako iragarki-oholetan eta URAren webgunean argitaratu zen.

Hasieran Urola UHko B taldean txertatutako zazpi aprobetxamenduei dagokienez, eskuragarri zegoen informazio guztia aztertu zen. Azterketa hortan Demarkazioko Plan Hidrologikoan ezarritako emari ekologikoen erregimenaren ezarpenak, aprobetxamendu horietako batean (A-G-2011-1266) eragin esanguratsurik izango ez zuela ondorioztatu zen; horrela, ur-aprobetxamendu hori A taldera transferitu zen, zirkunstantzia horren berri emanaz titularrari.

Gainerako 6 aprobetxamenduen kasuan, eskuragarri zegoen informazio guztia kontuan hartuta berariazko azterketak egin ziren. Azterketa horietan lortutako ondorioen berri emateko hainbat bilera burutu ziren titularrekin, non hilabeteko epea eman zitzaien egoki iruditzen zitzaizkien proposamen edo iradokizunak aurkez zitzaten.

Horietako bi aprobetxamenduren kasuan (A-G-2011-0885 eta A-G-2011-1147), epea amaitu eta titularren aldetik inongo idatzirik jaso ez zenez, aprobetxamendu horiek errespetatu beharreko emari ekologikoak jakinarazi zitzaizkien.

Beste ur-aprobetxamendu bati dagokionez (A-G-2011-0757), parte-hartze aktiboko prozesuan zehar berau ikusteko eginiko bisita baten ondorioz, emakidaren oinarrizko ezaugarriak aldatzeko izapide baten xede izan behar zela mahaigaineratu zen. Hori dela eta, aprobetxamendu hori Hitzartze Prozesu honetatik at gelditu zen.

A-G-2011-0500 erreferentziadun aprobetxamenduaren kasuan, titularrak idatzi bat aurkeztu zuen, Agentzia honek eginiko azterketan lortutako ondorioekin bere desadostasuna adieraziz, eta URAk konpentsazio gisa eskaini zitzakeen proposamenak kontuan hartzeko prest zegoela seinalatuz. Idatzi horri erantzuna eman zaio Agentzia honetatik eta jarraian aprobetxamenduak bete beharreko emari ekologikoak jakinaraziko zaizkio titularrari.

Azkenik, A-G-2011-0608 eta A-G-2011-0399 erreferentziadun aprobetxamenduei dagokienez, horietan emari ekologikoen erregimena ezartzeko Kudeaketa Plan bana adostu zen.

Urola Unitate Hidrologikoko «Kontsulta publikoaren eta parte-hartze aktiboaren eranskina» delako dokumentuan, kontsulta eta parte-hartze prozesuei buruzko informazioa kontsulta daiteke. Dokumentu hau publikoarentzat eskuragarri jarri da URAren webgunean.

Aurreko guztia kontuan izanik,

EBATZI DUT

Lehenengoa eta bakarra. «Emari ekologikoen erregimena ezartzeko Hitzartze Prozesua – Urola Unitate Hidrologikoa (2019ko urtarrila)» izeneko behin-betiko dokumentua onartzea eta bertan azaltzen diren ur-aprobetxamendu guztietan Hitzartze Prozesua bukatutzat ematea. Ur-aprobetxamenduen ze-

formó sobre el citado Proceso, y sobre el inicio del periodo de consulta pública en dicho ámbito, a la Dirección General de Medio Ambiente de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Durante la fase de consulta pública se recibieron cuatro alegaciones y/o propuestas que afectaban al ámbito de la UH Urola. Tras el análisis y respuesta a las mismas por parte de URA, se llegó a la conclusión de que las cuestiones solicitadas no contemplaban aspectos relevantes que debieran ser considerados en esta fase, por lo que se aprobó mediante Resolución de 21 de julio de 2015 del Director General de la Agencia Vasca del Agua el documento definitivo relativo a la Unidad Hidrológica Urola, dando por concluido el Proceso de Concertación en los aprovechamientos clasificados dentro del Grupo A. Dicha resolución fue publicada en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 173 el 10 de septiembre de 2015, en los tablones de anuncios de los ayuntamientos incluidos en la zona de estudio y en la página web de URA.

En relación con los siete aprovechamientos incluidos inicialmente en el Grupo B, se analizó toda la información disponible, concluyendo que para uno de ellos (A-G-2011-1266), la implantación del régimen de caudales ecológicos establecidos en el Plan Hidrológico de la demarcación no produciría ninguna afección relevante en los actuales usos del agua, transfiriendo así dicho aprovechamiento al Grupo A, y notificando esta circunstancia al titular del aprovechamiento.

Para los 6 aprovechamientos restantes, se realizaron análisis específicos teniendo en cuenta toda la información disponible, y con objeto de informar de las conclusiones obtenidas en los mismos, se llevaron a cabo diferentes reuniones con los titulares de dichos aprovechamientos, dándoles un plazo de un mes para que presentasen las propuestas que estimasen pertinentes.

En el caso de dos aprovechamientos (A-G-2011-0885 y A-G-2011-1147) concluido dicho plazo, sin recibir ningún tipo de observación por parte de los titulares, se procedió a notificarles los caudales mínimos ecológicos a respetar por los aprovechamientos.

Para otro de los aprovechamientos (A-G-2011-0575), tras realizar una visita al mismo como parte del proceso de participación activa, se determinó que la concesión correspondiente debía ser objeto de una modificación de características esenciales, quedando excluido, por lo tanto, del Proceso de Concertación.

En relación con el aprovechamiento con referencia A-G-2011-0500, el titular presentó un escrito de alegaciones mostrando su disconformidad con las conclusiones obtenidas en el análisis realizado por esta Agencia, y señalando que estaban dispuestos a considerar las propuestas, que a modo de compensación, URA les ofreciera. Se ha dado respuesta al escrito por parte de esta Agencia y se procederá a notificar los cauda-les ecológicos a respetar por el aprovechamiento.

Por último, para los aprovechamientos con referencia A-G-2011-0608 y A-G-2011-0399 se acordaron con los titulares, sendos Planes de Gestión para la implantación del régimen de caudales ecológicos en dichos aprovechamientos.

En el documento denominado «Anexo de consulta pública y participación activa» de la Unidad Hidrológica Urola, puesto a disposición del público en la página web de URA, puede consultarse toda la información relativa a los procesos de consulta y participación.

Teniendo en cuenta todo lo anterior,

RESUELVO

Primero y único. Aprobar el documento definitivo «Proceso de Concertación para la implantación del régimen de caudales ecológicos - Unidad Hidrológica Urola (enero 2019)», dando por concluido el Proceso de Concertación en todos los aprovechamientos objeto de concertación en la Unidad Hidrológica Urola.

rrenda behin-betiko dokumentuaren I. eta II. Eranskinetan ageri da eta URAren web-orrian kontsulta daiteke (www.uragentzia.euskadi.eus).

Ebazpen honek eragina izango du Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Gasteiz, 2019ko otsailaren 22a.—Ernesto Martínez de Cabredo Arrieta, zuzendari nagusia. (1396)

La relación de aprovechamientos está incluida en los Anexos I y II del documento definitivo, disponible en la página web de URA (www.uragentzia.euskadi.eus).

La presente resolución surtirá efectos desde el día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Vitoria-Gasteiz, a 22 de febrero de 2019.—El director general, Ernesto Martínez de Cabredo Arrieta. (1396)

EK\CV GAO-I-2019-01396